



2023ko ESZENARIO MAKROEKONOMIKOA

Gipuzkoak egoera ekonomiko konplexu eta zalantzaz beteari aurre egin behar izan zion 2023an. 2023ko ekitaldia Ukrainako gerrak, nazioarteko merkataritza-fluxuen berrantolaketak, inflazio handiak, diru-politikaren zeinu aldaketak eta ziurgabetasun handiak baldintzatu dute. Egoera horretan, Gipuzkoako ekonomiak erresilientzia handia erakutsi zuen testuinguru ekonomiko mehatxatzen zuten erronken aurrean, eta hazkunde-erritmo egonkorra izan du.

Urteko lehen hiruhilekoa %2,8ko igoerarekin hasi zen. Ondoren, eta Ukrainako gerraren iraupenaren, inflazio handiaren eta interes-tasen igoeraren eraginaren ondorioz, Gipuzkoako ekonomiaren hazkunde-tasak motelduz joan ziren. Horrela, bigarren hiruhilekoan igoera %1,5ekoa izan zen, hirugarrenean %2,0koa eta 2023ko azken eta laugarren hiruhilekoetan BPG erreala % 1,8 hazi zen.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako ekonomiak **BPG errealaren** %1,9ko hazkundearekin itxi zuen 2023. urtea. Urteko azken saldoa oso positiboa da, eta Europako herrialde nagusien eta Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik dago (+% 0,5).

ESCENARIO MACRO- ECONÓMICO 2023

Gipuzkoa tuvo que hacer frente en 2023 a un escenario económico complejo y lleno de incertidumbres. El ejercicio 2023 ha estado condicionado por la guerra en Ucrania, la reordenación de los flujos comerciales internacionales, la elevada inflación, el cambio de signo de la política monetaria y una elevada incertidumbre. En este escenario, la economía de Gipuzkoa mostró una gran resiliencia ante los retos que amenazaban el contexto económico y ha tenido un ritmo de crecimiento estable.

El primer trimestre del año comenzó con una subida del 2,8%. Posteriormente, y como consecuencia de la duración de la guerra de Ucrania, la elevada inflación y el impacto de la subida de tipos de interés, las tasas de crecimiento de la economía de Gipuzkoa fueron desacelerándose. Así, en el segundo trimestre la subida fue del 1,5%, en el tercero del 2,0% y en el último y cuarto trimestre de 2023, el PIB real creció un 1,8%.

A pesar de todo ello, la economía de Gipuzkoa cerró el 2023 con un **crecimiento del PIB** real del 1,9%. El saldo final anual es muy positivo, y se encuentra por encima tanto de las cifras de la mayoría de los principales países europeos, como de la media de la Unión Europea (+0,5%).

**BPG errealearen bariazioa /
Variación del PIB real (%)**

	2022	2023
Gipuzkoa	4,3	1,9
EAE / CAPV	5,4	1,8
Espainia	5,8	2,5
Alemania	1,8	-0,2
Frantzia	2,5	0,7
Italia	4,0	0,9
EB-27	3,4	0,5

Iturria/Fuente: EUSTAT - Eurostat

Portaera horren gako bereizgarria lan-merkatuaren portaera ona izan zen.

La clave diferencial de ese comportamiento fue el buen comportamiento del mercado de trabajo.

Enpleguaren 2023ko bilakaerak emaitza positiboak eman zituen, bai EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) okupazio-estatistiketan, bai Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruan.

La **evolución del empleo** durante 2023 ofreció resultados positivos, que son evidentes tanto en las estadísticas de ocupación de la Encuesta de Población en relación con la Actividad (PRA) del EUSTAT, como en el número de afiliados a la Seguridad Social.

Lehen iturriarekin, Gipuzkoan, urteko batez bestean, enplegua 1.600 pertsonatan hazi zen 2023an, eta bigarrenarekin 6.668 pertsonatan. Nolanahi ere, BJAREN arabera, afiliazioa okupazioaren gaintik hazi da sistematikoki. Azken estatistika horretan oinarrituta, langabezia-tasa %6,4koa izan zen 2023an, 2010etik izandako txikiena.

Con la primera de ambas fuentes, el empleo medio anual creció en Gipuzkoa en 1.600 personas en 2023; con la segunda, en 6.668 personas. En todo caso, se advierte que la afiliación ha venido creciendo sistemáticamente por encima de la ocupación en términos de la PRA. En base a esa última estadística, la tasa de paro se situó en 2023 en el 6,4%, la más baja desde el año 2010.

Nolanahi ere, egia esan, Gipuzkoako lan-merkatuak erresilientzia seinaleak erakutsi ditu, baita ziurgabetasun handiko uneetan ere, hala nola aurreko ekitaldian bizi izandakoetan.

Sea como fuere, lo cierto es que el mercado laboral de Gipuzkoa ha mostrado señales de resiliencia, incluso en momentos de elevada incertidumbre como los vividos el pasado ejercicio.

2023an, **kanpo-merkataritzak** dinamismoa erakutsi zuen. Esportazioek 10.047 milioi euroko errekorra izan zuten (aurreko urtean baino %1,4 gehiago), eta inportazioak 5.231 milioi eurora iritsi ziren (2022an baino %8,5 gutxiago). Horren ondorioz, merkataritza-saldoak 4.815 milioi euroko superabita izan zuen.

En 2023 el **comercio exterior** mostró dinamismo. Las exportaciones registraron una cifra record de 10.047 millones de euros (1,4% más que el año anterior), y las importaciones llegaron hasta los 5.231 millones de euros (8,5% menos que en 2022). Como consecuencia de ello, el saldo comercial presentó un superávit de 4.815 millones de euros.

ESPORTAZIOAK / EXPORTACIONES (milioi eurotan / millones de euros)								
Urtea	Guztira	Nekazaritza	Papera	Plastikoa eta kautxoa	Metalak	Material elektrikoa	Garraio - materiala	Besteak
Año	Total	Agricultura	Papel	Plástico y caucho	Metales	Material eléctrico	Material de transporte	Resto
2021	8.120	394	485	293	1.881	2.790	1.518	759
2022	9.905	623	622	379	2.468	3.212	1.592	1.009
2023	10.047	591	518	347	2.141	3.366	2.090	993
Urteko aldaketa tasak (%) / Tasas de variación anual en %								
2022	22,0	58,2	28,4	29,4	31,2	15,1	4,8	33,0
2023	1,4	-5,2	-16,8	-8,4	-13,2	4,8	31,3	-1,6

Iturria / Fuente: Eustat

Material elektrikoaren kanpo-salmentak dira kuantitatiboki adierazgarrienak: 3.366 milioi eurora iritsi ziren, hau da, salmenta guztien %33,5. 2022. urtearekin alderatuta, %4,8 hazi ziren.

Las ventas exteriores de material eléctrico son las más representativas cuantitativamente: ascendieron a 3.366 millones de euros y suponen el 33,5% del total. Respecto a 2022 crecieron un 4,8%.

2023an bigarren sektore esportatzaileena produktu metalikoak izan ziren, 2.141 milioi euroekin. Aurreko urtearen aldean %13,2 jaitsi ziren.

El segundo sector más exportador en 2023 fue productos metálicos, con 2.141 millones de euros. Respecto al año anterior disminuyeron un 13,2%.

Garraio-materiala sektoreko esportazioak hazi ziren gehien 2023an, %31,3.

Las exportaciones del sector material de transporte fueron las que más crecieron en 2023, un 31,3%.

Azterketa geografikoan, Europar Batasunera bideratutako esportazioek (guztizkoaren %57,4) 5.763 milioi euroko balioa izan zuten, eta %1,6 jaitsi ziren 2022. urtearekin alderatuta.

En el análisis geográfico, las exportaciones dirigidas a la Unión Europea (57,4% del total) alcanzaron un valor de 5.763 millones de euros, disminuyendo un 1,6% respecto a 2022.

ESPORTAZIOAK / EXPORTACIONES (milioi eurotan / millones de euros)										
Urtea Año	Guztira Total	UE 27				Erresuma Batua / Reino Unido	EEUU	Txina	Latinoamerika	Gainerako herrialdeak / Resto países
		Guztira Total	Frantzia	Alemania	Italia					
2021	8.120	4.843	1.469	840	457	511	497	240	677	1.352
2022	9.905	5.854	1.830	999	593	797	680	217	728	1.629
2023	10.047	5.763	1.660	1.004	672	697	742	252	715	1.879
Urteko aldaketa tasak (%) / Tasas de variación anual en %										
2022	22,0	20,9	24,6	19,0	29,8	55,8	37,0	-9,5	7,5	20,5
2023	1,4	-1,6	-9,3	0,5	13,4	-12,5	9,0	15,9	-1,8	15,3

Iturria / Fuente: Eustat

Frantziarako kanpoko salmentak, gure esportazioen xede nagusia (guztizkoaren %16,5), %9,3 jaitsi ziren. Alemaniara (bigarren merkataritza bazkidea) egindako esportazioak %0,5 igo ziren.

Las ventas exteriores a Francia, el principal destino de nuestras exportaciones (16,5% del total) disminuyeron un 9,3%. Las exportaciones a Alemania, segundo socio comercial, crecieron un 0,5%.

Erkidegotik kanpoko helmugetarako salmentak, 4.284 milioi eurokoak (guztizkoaren %42,6), %5,8 gehitu ziren. Estatu Batuei zuzendutako salmenten dinamismoa nabarmendu zuen bereziki, 2023an %9,0 igo baitziren.

Las ventas a destinos extracomunitarios, por importe de 4.284 millones de euros (42,6% del total), se incrementaron un +5,8%. Destacó especialmente el dinamismo de las ventas dirigidas a Estados Unidos, que aumentaron un 9,0% en 2023.

Turismoa lehen mailako baldintzatzaile bihurtzen ari da garapen ekonomikoan. 2023an, Gipuzkoako turismo adierazleek susperraldia sendotu zuten, 2022ko ekitaldian pandemiaren aurreko mailak gainditu ondoren.

El **turismo** se está convirtiendo en un condicionante de primer orden en el desarrollo económico. En 2023 los indicadores del turismo en Gipuzkoa mostraron una consolidación de la recuperación, tras superar los niveles previos a la pandemia en el ejercicio 2022.

Hala, 1.495.514 sarrera erregistratu ziren hotel establezimenduetan, 2022an baino

Así, se registraron 1.495.514 entradas en establecimientos hoteleros, un 8,8% más

%8,8 gehiago. Gaualdiak, berriz, 2.982.581 izan ziren, hau da, %10,3 gehiago. Bi kasuetan, errekorra dira datuen serie historiko osoan.


Era berean, nabarmentzekoak dira atzeritar jatorriko sarrera eta ostatu-gauen kopuruaren igoerak, %16,8 eta %17,0, hurrenez hurren.

Inflazioa izan zen 2023ko egoera ekonomikoaren baldintzatzaile nagusietako bat, bai Gipuzkoan, bai gainerako ekonomietan, aldagai makroekonomiko nagusietan eragin baitzuen: kontsumo pribatua, inbertsioa, moneta-politika, etab.

que en 2022. Mientras que las pernoctaciones se elevaron a 2.982.581, un 10,3% más. En ambos casos suponen un record en toda la serie histórica de datos.

Asimismo, destacan los incrementos en el número de entradas y pernoctaciones de origen extranjero, del 16,8% y del 17,0%, respectivamente.

La **inflación** fue uno de los principales condicionantes de la coyuntura económica en 2023, tanto en Gipuzkoa como en el resto de economías, al influir en las principales variables macroeconómicas: consumo privado, inversión, política monetaria, etc.



2023an prezioen moderazio-prozesuak jarraitu du, bai BPGren deflaktoreak neurtuta, bai KPIk neurtuta. Azken kasu horretan, abenduko aldakuntza-tasa % 3,3an zegoen.

Neurri handi batean, erregaien prezioen jaitsierari esker gertatu da moderazio hori, udako hiru hilabeteren ondoren goranzko bilakaera izan baitu. Era berean, beste faktore erabakigarri bat izan zen duela gutxi moneta-politika gogortu izanak izan zuten

En 2023 ha continuado el proceso de moderación de los precios, tanto medidos por el deflactor del PIB como por el IPC. En este último caso, la tasa de variación de diciembre se encontraba ya en el 3,3%.

Esta moderación se da gracias, en gran medida, a la caída de los precios de los carburantes, después de tres meses de verano con una evolución alcista. Asimismo, otro factor determinante fue el impacto que tuvo el reciente endurecimiento de la

eragina. Erregaien prezioen jaitsiera hori petrolioaren prezioak izan zuen bilakaeraren isla izan zen. Saudi Arabian eta Errusian izan ziren ekoizpen-murrizketen ondorioz, lehengai horrek gora egiten jarraitu zuen irailean, eta urteko maila gorenetan kokatu zen. Hala ere, hilabete horretatik aurrera petrolio gordinaren prezioak nabarmen egin zuen behera, Estatu Batuetan, Brasilen eta beste herrialde batzuetan ekoizpena handiagoa izan zelako. Gainera, Israelen eta Hamasen arteko gatazkak eragin mugatua izan du petrolioaren merkatuan.

Hala ere, petrolio gordinaren prezioa moteldu bada ere, balio altuetan mantentzen da. Horri esker, inflazioa handiagoa da Gipuzkoan euroaren eremuan baino, gure ekonomiarekiko energia-mendekotasun handiagoa baitago.

Sektore publikoari dagokionez, zerga itunduen zerga-bilketa errekorra izan zen Gipuzkoan 2023an, hasierako aurreikuspenak nabarmen gaindituz. Zehazki, bilketa 5.960 milioi euro baino gehiagokoa izan zen, eta urte arteko aldakuntza-tasa %6,5ekoa izan zen. Errekor hori, neurri handi batean, lanaren atxikipenen dinamismoagatik, enplegua sortzearen eta soldatak igotzearen ondorioz. Sozietateen gaineko Zergaren bilketa ere % 7,4 igo zen, lurraldeko produkzio-sarearen bilakaera ekonomiko positiboaren isla. Zeharkako zergapetzearen dinamika, aldiz, negatiboa izan zen, oinarritzko elikagaietan eta gasean tasak jaitsi zirelako eta kontsumoa moteldu zelako.

política monetaria. La mencionada caída de los precios de los carburantes fue reflejo de la evolución que registró el precio del petróleo. Los recortes de producción que se produjeron en Arabia Saudí y Rusia provocaron que dicha materia prima continuara con su ascenso en el mes de septiembre y se situara en niveles máximos del año. Sin embargo, a partir de dicho mes el precio del crudo bajó considerablemente, por una mayor producción en Estados Unidos, Brasil y otros países. Además, el conflicto entre Israel y Hamás ha tenido una incidencia limitada en el mercado del petróleo.

No obstante, si bien el precio del crudo se ha moderado, se mantiene en valores elevados. Esto contribuye a que la inflación sea más elevada en Gipuzkoa que en la zona del euro, por la mayor dependencia energética de nuestra economía.

En lo que respecta al **sector público**, la recaudación por tributos concertados alcanzó un récord en Gipuzkoa en el año 2023, superando ampliamente las previsiones iniciales. En concreto, la recaudación ascendió a más de 5.960 millones de euros, y la tasa de variación interanual fue del 6,5%. Este récord estuvo impulsado, en buena medida, por el dinamismo de las retenciones del trabajo, impulsadas por la creación de empleo y las subidas de salarios. También se incrementó en un 7,4% la recaudación por el Impuesto sobre Sociedades, reflejo de la positiva evolución económica del tejido productivo del territorio. Por el contrario, la dinámica de la imposición indirecta fue negativa, por la rebaja de tipos en los productos alimenticios básicos y en el gas, y, por la ralentización del consumo.